



Soldata murrizketak - Lan sarien erreklamazioa

Dagoeneko urte erdia iragan da Epaitegi Gorenak itunpeko ikastetxetako langileei ezarritako lansari-murrizketak legez kanpokotzat jo zituenetik. Harrez geroztik - 2012 abenduan negoziazio-mahaia bildu zenetik- Kristau Eskolak behin eta berriz eskatu die sindikatuei erreklamazioak geldiaraztea eta berririk ez egitea aurrekontuen proiektua gauzatzen ez zen bitartean. Gainera, ateratzeaz zegoen Jaurlaritzaren kontra jarritako bere helegitea.

Dakizuenek, STEE-EILASek eskaera hau errespetatu zuen eta bere eskuetan zeuden ekimen judzialak geldiarazi zituen.

Bai Jaurlaritzaren kontrako helegitearen sententzia (Kristau Eskolaren kontrakoa) bai 2013. urteko aurrekontu proiektuaren proposamena ezagunak dira dagoeneko, baina *Kristau Eskolak* bere horretan - epaia eta hitzarmena bete gabe, alegia- jarraitzen du.

Honez gain jakina da ikatetxeren batek- esate baterako Escolapios-ek - zorraren zati bat, bederen, ordaintzea erabaki duela.

Hori guztia ikusita, geldirik zeuden erreklamazioak berraktibatzea erabaki du STEE-EILASek, auziak, kasu gehienetan hurrengo ikasturterako atzeratuko direla jakinda, eta, beraz akordiorako ateak zabalik utziz.

Horrela, STEE-EILASek geldirik zeuden erreklamazioak aktibatu eta ERREKLAMAZIO BERRIAK aurkezteari ekingo dio.

Zure erreklamazioa egin ez baduzu STEE-EILASek epealdi berria zabaldu du eta beraren zerbitzu juridikoen bidez zure demanda bideratzeko aukera eskaintzen dizu. Erreklamazioak banakakoak izan arren, batuko ditugu ikastetxex ikastetxe espediente bakar bat tramitatzeko.

Kantitate-erreklamaziorik STEE-EILASen bitartez egin nahi izanez gero www.stee-eilas.org sindikatuaren web-orrian beharrezko material guztia daukazu. Afiliatua bazara, STEE-EILASen zerbitzu juridikoek bideratuko dituzte erreklamazioak doan. Afiliatu gabe jarraitzea erabakitzen duenak eta STEE-EILASen bitartez erreklamazioa martxan jartzeko 45 € ordaindu beharko du.

Hauek dira eman beharreko dokumentuak:

- Datuen orria: Norberaren datuekin, maila bakoitzari dagokion lan portzentajearekin eta bestelako aldaketekin: eszedentzia, amatasun edo aitatasun baimena, eta abar, betea.
- Sindikatuari emandako baimena, betea eta sinatua. Eredu desberdinak daude afiliatu eta ez afiliatuentzat.
- Fotokopiak: ondo ordaindutako azken nominarena eta gaizki ordaindutako guztienak (deskontuekin), 2010eko irailetik 2012ko abendu arte.
- Afiliazio-orria: afiliatzea erabakiz gero. Kasu honetan, erreklamazioa doakoa izango da.
- Banketxeko egiaztagiria: Afiliatuak ez direnentzat. Sindikatuaren kontuan 45 € ordaindu izanaren egiaztagirian izena eta, kontzeptu modura, erreklamazioa adierazi.

Gogoratu nahi dugu erreklamazioa edozein itunpeko ikastetxetako (ikastolakoak barne) kaltetuko langileak ipini dezakeela.

Zalantzarik izanez gero dudarik ez izan kontaktuan jartzeko gure ordezkari sindikalekin ala egoitzekin.

[Hezkuntzan STEE-EILAS](#)

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org